



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Enpresa eta Negozio Ereduen Diseinua

USE 2024

www.ehu.eus



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK
2024ko EZOHAKOIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

**ENPRESA ETA NEGOZIO
EREDUEN DISEINUA**

**EMPRESA Y DISEÑO DE
MODELOS DE NEGOCIO**

Azterketa honek bederatzi galdera ditu (zortzi 2 puntukoak eta bat 4 puntukoak). Erantzuteko, bi aukera dituzu:

- bi puntuko bost galderari erantzutea

- bi puntuko hiru galderari eta lau puntukoari erantzutea

Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte

Ez ahaztu azterketa-orrialde bakoitzean kodea jartzea

1. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

Irakurri testua, eta erantzun galderari:

SOLDATEK BERRESKURATU DUTE COVIDAREN AURREKO EROSTEKO AHALMENA

Kotizazioen gorakadak eragindako lan-kostuen igoerak esportazioak oztopatuko dituela ohartarazi du Espainiako Bankuak.

Azken urteetan **lanbide arteko gutxieneko soldataren** (LGS) igoerak eta batez besteko soldataren igoerak (negoiazio kolektiboan hitzartutakoa baino handiagoa izan da) eragin dute Espainiako soldatak inflazioak jasandako erosteko ahalmenaren galeratik berreskuratu izana eta pandemiaren aurreko mailetan egotea; Euroguneko batez bestekoan, berriz, ez dute eten hori itxiko 2025era arte.

Espainiako Bankuko gobernadore Pablo Hernández de Cosek, Cunefeko ikasleekin izandako topaketa batean —han lizentziatu zen bera duela 26 urte—, zehaztu zuen soldaten igoera enpresek eta langileek hitzarmenen negoziazioan adostutakoaren gainetik dagoela, "lan-merkatua tenkatzearen ondorioz sortutako konposizio efektuek" eraginda, hau da, bete gabe geratzen diren lanpostu hutsen gorakadaren eta eskulana erakartzeko zailtasunaren ondorioz. Enpresa-jarduerari buruzko azken inkestaren arabera, esan zuen, konpainien % 43k aitortu zuten 2023an eskulana eskuragarri ez egoteak eragin negatiboa izan zuela beren jardueran.

"Zailtasun horiek, dirudienez, enpresek eskatzen dituzten kualifikazioen eta langileek eskaintzen dituztenen arteko desorekaren ondorioz sortzen dira; izan ere, arazo hori duten konpainien erdiek baino gehiagok adierazi dute lanpostu hutsetarako beharrezko kualifikazioa duten langileak falta direla. Arazo hori nabarmenxeagoa da erdi-mailako edo goi-mailako Lanbide Heziketako lan-profilak behar dituzten enpleguetan eta, jarduera-adarren arabera, industrian, eraikuntzan eta garraioan", adierazi zuen.

Lanpostuak betetzeko langile gutxiago daudenez, konpainiak enkante batean sartzten dira, talentua erakartzeko eta atxikitzeke, eta horrek soldaten igoera sustatzen du.

Bigarren funtsezko faktorea LGSaren igoera da, 2020an pandemia piztu zenetik 950 eurotik 1.134 eurora igaro baita 14 ordainsaritan, % 19,3ko igoera



**ENPRESA ETA NEGOZIO
EREDUEN DISEINUA**

**EMPRESA Y DISEÑO DE
MODELOS DE NEGOCIO**

termino nominaletan eta % 4,7koa termino errealetan (inflazioa deskontatu ondoren).

Soldaten hobekuntza, ordea, **produktibitateak** modu berean eboluzionatu gabe gertatu da; horrek enpresen lan-kostuak handitzea ekarri du, eta haien **lehiakortasuna** arriskuan jartzen du. Enpresen kostuak igotzen badira eta produkzio handiagoak iguera hori konpentsatzen ez badu (produktibitatea hazten ez delako), orduan azken prezioak igo beharrean gerta daitezke, irabazi-marjinen estutze hori konpentsatzeko.

Prezioen iguera horrek erakargarritasuna kentzen die **esportatzen** diren produktuei, eta, beraz, gerta liteke gure erosleek eskaria murriztea edo hornitzaile alternatiboak bilatzea.

Galderak:

- Definitu eta azaldu testuan azpimarratutako hitzak.
- Zein da prentsa-artikulu honetan azaltzen den ideia nagusia?

2. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

PERTUERO SA enpresak jostailuen salerosketan dihardu, eta honako eragiketa hauek egin ditu maiatzean:

- 05/01 Hasierako izakinak: 20 unitate 10 €/unitate.
- 05/07 GAC hornitzaileari erosketa: 30 unitate 11,00 €/unitate.
- 05/10 JOSTA bezeroari salmenta: 30 unitate 19,35 €/unitate.
- 05/15 TUNIA bezeroari salmenta: 20 unitate 18,75 €/unitate.
- 05/23 BARA hornitzaileari erosketa: 25 unitate 11,00 €/unitate.
- 05/25 EIRA hornitzaileari erosketa: 15 unitate 12,00 €/unitate.
- 05/30 SNOW bezeroari salmenta: 30 unitate 22,95 €/unitate.

Aurreko datuak aintzat harturik, bete ezazu otsaileko biltegi-fitxa FIFO eta batez besteko prezio haztatuaren (BPH) balorazio-metodoak erabiliz, eta kalkula itzazu bukaerako izakinak eta izakin horien balioa.

3. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

Aukera ezazu erantzun zunena.

1. Soldata-arrakala.

- Gizonen eta emakumeen artean dagoen soldata-aldea erakusten duen neurri objektiboa da.
- Lanpostuen arteko soldata-aldea erakusten duen kontzeptua da.
- Gaur egun ez dago soldata-arrakalik, aspaldiko kontua da.



**ENPRESA ETA NEGOTZIO
EREDUEN DISEINUA**

**EMPRESA Y DISEÑO DE
MODELOS DE NEGOCIO**

- d) Gizonen eta emakumeen arteko soldata-aldea erakusten ez duen faktore subjektiboa da
2. Sozietate anonimo baten irabazi gordina 17.800 €-koa bada, eta sozietateen gaineko zergaren zerga-tasa % 24koa bada.
- a) Enpresaren irabazi garbia 4.272 €-koa izango da.
 - b) Enpresaren mozkin garbia 17.800 €-koa izango da, sozietateen gaineko zerga zuzeneko zerga baita.
 - c) Enpresaren mozkin garbia 13.528 €-koa izango da.
 - d) Enpresa honen sozietateen gaineko zergaren kuota 13.528 €-koa izango da.
3. Nola kalkulatu da merkatu-kuota?
- a) Enpresa baten merkatu potentziala zati merkatu osoa, 100ez biderkatuta.
 - b) Merkatu osoa zati egungo merkatua, 100ez biderkatuta.
 - c) Enpresaren merkatua zati merkatu osoa, 100ez biderkatuta.
 - d) Enpresaren merkatua zati merkatu potentziala, 100ez biderkatuta.
4. % 54ko jarduera-tasak hau adierazten digu:
- a) Langile kopurua biztanleria osoarena baino % 54 txikiagoa da.
 - b) Biztanleriaren % 54 lanean ari da.
 - c) Lan egiteko adinean dauden 100 biztanleko, 54 ari dira lanean edo lan bila.
 - d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
5. Hauek dira lehia inperfektuaren mota nagusiak:
- a) Monopolioa, oligopolioa eta monopolio-lehia.
 - b) Merkatuetako lehia beti da perfektua.
 - c) Merkatuko prezioan eraginik ez duten erosle eta saltzaile asko daude.
 - d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
6. Enpresaren pasibo ez-arrunta honela definitzen da:
- a) Enpresaren epe luzeko eskubideak edo inbertsioak
 - b) Enpresaren epe laburreko eskubideak edo inbertsioak.
 - c) Urtebetetik gorako epemuga duten obligazioak edo finantzaketa.
 - d) Urtebete baino gutxiagoko epemuga duten obligazioak edo finantzaketa.
7. Zergatik da eskasia termino erlatiboa?
- a) Beharrak mugatuak eta baliabideak urriak direlako.
 - b) Beharrak mugagabeak eta baliabideak mugagabeak direlako.
 - c) Beharrak mugagabeak direlako eta baliabideak urriak.
 - d) Beharrak mugatuak eta baliabideak mugagabeak direlako.
8. Enpresaren kokapena ez dago honen mende:
- a) Enpresaren forma juridikoa.
 - b) Lurzoruaren kostua.
 - c) Jarduera-mota.
 - d) Administrazioen laguntzak.



**ENPRESA ETA NEGOTZIO
EREDUEN DISEINUA**

**EMPRESA Y DISEÑO DE
MODELOS DE NEGOCIO**

9. Honako hauek dira kostu aldakorrak:
- Lortutako produktuaren kantitatearen araberakoak direnak.
 - Denboraren arabera aldatzen direnak.
 - Ekoizpen-bolumenarekiko independenteak direnak.
 - Langile-gastuak.
10. Produktu bat sustatzearen helburua, marketin-mixaren osagai gisa, hau da:
- Kontsumitzailearen beharrak asetzea.
 - Produktuaren existentzia, abantailak eta asetzen dituen beharrak jakinaraztea.
 - Produktua kontsumitzailearen esku jartzea berak behar duen unean, lekuan eta kopuruan.
 - Merkatuan ondasun baten balioa irudikatzea eta bezero bat zenbat ordaintzeko prest dagoen adieraztea.

4. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu

ELURKETA enpresak elurretan ibiltzeko gurpilak ekoizten ditu. Klima-aldaketa dela eta, gurpilen ezaugarriak egokitzeko beharra du. Horretarako, bi inbertsio-aukera ditu:

Lehen aukera: Hasieran dituen kapital-ondasunak egokitzea 10.000 €-ko inbertsioa eginez. Inbertsioak 3 urteko iraupena izango luke. Urte bakoitzean lorturiko kutxako fluxu garbiak, hurrenez hurren, 4.000 €, 6.000 €, eta 8.000 € lirarteke.

Bigarren aukera: Hasierako kapital-ondasunak 10.500 euroren truke saltzea eta hasierako 26.000 euroko inbertsio bat egitea ondasun berriak erosteko. Aukera horretan inbertsioak 4 urte iraungo luke eta urtean, hurrenez hurren, 6.000 €, 6.000 €, 20.000 € eta 16.000 €-ko diru-sarrerak lortzeko aurreikusten du. Kostu osoei dagokienez, lehen urtean 5.000 € lirarteke eta urtero % 12ko hazkuntza izango lukete.

Kontuan hartuta inflazio-tasa % 8 izango dela urtez urte eta lortu nahi den errentagarritasun minimoa % 10 dela:

Kalkula ezazu:

- Zer inbertsio aukeratu beharko luke balio eguneratu garbiaren irizpidearen arabera (BEG irizpidea)? Arrazoitu erantzuna.
- Zer inbertsio aukeratu beharko luke berreskuratze-epearen irizpidea (Pay Back irizpidea) erabiliz gero? Arrazoitu erantzuna.
- Bi irizpideetatik (BEG edo Pay Back), zein da egokiena? Zergatik?



**ENPRESA ETA NEGOTZIO
EREDUEN DISEINUA**

**EMPRESA Y DISEÑO DE
MODELOS DE NEGOCIO**

5. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu

Ogia ekoizten duen enpresa batek 45.000 €-ko balioko irina erosi eta kontsumitu du urte batean, eta biltegian edukitzen duen irin kantitateak batez beste, 1.500 € balio du. Bere hornitzaileei 20 egunetik behin ordaintzen dizkie. Urte horretan saldutako ogiaren truke 135.000 € eskuratu ditu, eta bezeroek enpresarekin, batez beste, 3.600 €-ko zorra mantendu dute.

Ogia ekoizteko, 100.000 € behar izan dira, eta fabrikazioan dauden ogien balioa, batez beste, 5.000 € izan da. Saldutako ogien kostua 104.000 €-koa izan da, eta biltegian dauden ogien batez besteko balioa 5.200 €-koa da.

Kalkula ezazu:

- Batez besteko heltze-aro ekonomikoa. Azaldu emaitza.
- Batez besteko heltze-aro finantzarioa. Azaldu emaitza.

6. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

BOLLAR SM. enpresak maletak fabrikatzen ditu. Planteatzen ari da ea interesatzen zaion makineria berritzea. Makina berriekin, maleta bakoitzaren ekoizpen-kostua 8 € izango da; beste aukera Txinako enpresa bati maletak erostea da, maletako 12 euro ordainduta, eta hark merkaturatzea.

Datu horiekin, kalkula ezazu:

- Ekoizpena 10.000 maleta bada, zein izango litzateke makineriagatik ordaindu dezakeen gehieneko prezioa fabrikatzea merezi izateko?
- Aurreko makineriaren kostua kontuan hartuta, a) atalean kalkulaturik, eta produkzio-kostua % 25 murriztuko litzatekeela kontuan hartuta, gehienez zer preziotan erosi liezazkioke maletak enpresa txinatarrari, maletak fabrikatu beharrean erostea hobe izan dadin?
- Adierazi grafikoki b) puntuaren soluzioa.

7. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

ARRAIN-AMU enpresak arrantzarako amuetarako kutxak ekoizten ditu. Iaz 240.000 kutxa ekoitzi zituen 12 langilerekin. Lan-egutegia 250 egunekoa izan zen, egunean 8 ordu lan eginda. Aurten 270.000 kutxa ekoitzi ditu, langile bat gehiago kontratatuta; langile bakoitzak 1.764 orduz lan egin du.

Amu-kutxa bakoitza 23 euroan saltzen da. Kutxa bakoitza ekoizteko, altzairua behar da, 4 euroko kostuarekin, eta lan egindako ordua 15 euro ordaintzen da.

Datu horiekin:

- Kalkulatu ekitaldi bakoitzeko produktibitatea eta produktibitatearen gehikuntzaren edo murrizketaren ehunekoa.



**ENPRESA ETA NEGOTIO
EREDUEN DISEINUA**

**EMPRESA Y DISEÑO DE
MODELOS DE NEGOCIO**

- b) Aurten sektorearen produktibitatea 13 amu-kutxakoa izan da lan egindako ordu bakoitzeko. Konparatu enpresaren produktibitatea sektorekoarekin ehunekotan.
- c) Kalkulatu enpresak ekitaldi honetan duen produktibitate osoa.
- d) Azaldu zer neurri har ditzakeen enpresa batek produktibitatea handitzeko.

8. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 4 puntu.

MUDAKA SA enpresak ondare-datu hauek aurkeztu zituen 2023aren amaieran:

1. Bazkideen ekarpenak	??????
2. Eraikinak	120.000
3. Gizarte Segurantzari zor diona	4.000
4. Biltegian salmentarako dituen salgaiak	18.000
5. Ordenagailuak	23.000
6. Bezeroak onartutako kanbio-letrak	25.000
7. Hornitzaileak	30.000
8. Ibilgetuaren amortizazio metatua	32.000
9. BEZagatik Ogasun Publikoari zor diona	3.000
10. Aurreko ekitaldiko emaitzak	9.000
11. Garraiorako furgoneta	63.000
12. Epe motzean ibilgetu-hornitzaileekin duen zorra	18.500
13. kredituerakunde batekin 5 urterako duen mailegua	122.000
14. Hornitzaileei onartutako kanbio-letrak	8.500
15. Bezeroak	36.000
16. Enpresan duen dirua	10.200
17. Erreserba legalak	12.000
18. Bankuko kontu korrontean duen dirua	31.300
19. Programa informatikoak	19.000
20. Beste enpresa batean dituen epe laburreko inbertsioak	9.000

Datu horiekin, honako hau eskatzen da:

- a) Enpresaren egoera-balantzea egitea eta bazkideen ekarpenak kalkulatzeko
- b) Errotazio-funtsa edo maniobra-funtsa kalkulatzeko, irudikatzea eta emaitza aztertzea.
- c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:
 - Ibilgetua.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK
2024ko EZOHAKOIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

**ENPRESA ETA NEGOZIO
EREDUEN DISEINUA**

**EMPRESA Y DISEÑO DE
MODELOS DE NEGOCIO**

- Zorpetzea.
- Likidezia.
- Bermea.
- Diruzaintza

9. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

Erantzun galdera honi.

Zer faktorek eragiten dute industria-enpresa baten kokapena zehazteko orduan?

2024

ENPRESA ETA NEGOZIO EREDUEN DISEINUA

1)

a)

Lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) edozein langilek jaso beharreko gutxieneko ordainsaria da. Hau da, inork ezin du muga horretatik behera kobratu, bere egoera, sektorea edo kontratu mota edozein dela ere. Muga hori Estatuko Gobernuak ezartzen du, KPIa, produktibitatea... eta gisako faktoreak kontuan hartuta, normalean BOEn argitaratutako errege-dekretu baten bidez.

Produktibitatea produkzio-sistema batek lortutako produktu kopuruaren eta ekoizpen hori lortzeko erabilitako baliabideen arteko erlazioa da. Emaitzen eta emaitzak lortzeko erabilitako denboraren arteko erlazio gisa ere definitu daiteke: nahi den emaitza lortzeko behar den denbora zenbat eta laburragoa izan, orduan eta emankorragoa da sistema.

Enpresa batentzat, **lehiakortasuna** kalitate jakin bateko ondasun (produktu edo zerbitzu) bat lehiakide dituen enpresek baino prezio txikiagoan hornitzeko gaitasuna da. Hitz gutxitan, esan genezake lehiakorra izatea dela gure enpresak gauzak bere lehiakideak baino hobeto egiteko duen gaitasuna, bai produktuari, ekoizpenari, kostuei, kalitateari eta abarri dagokienez.

Esportatzea da herrialde batean ekoiztutako edo sortutako ondasunak edo zerbitzuak kanpoko erosleei, beste herrialde batzuei, saltzea.

b)

Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da azken urteotan lanbide arteko gutxieneko soldataren igoerak izan duen garrantzia; horren ondorioz, sektore edo enpresa batzuetako negoziazio kolektiboak lanbide arteko gutxieneko soldatan izandako igoeraren proportzio berean hazi dira, baita handiagoan ere. Eta horrek ekarri du soldaten erosteko ahalmenak pandemiaren aurreko maila berreskuratzea euroguneko gainerako lekuetan baino lehenago.

Bestalde, lanpostu hutsak betetzeko behar den kualifikazioa duten langileak aurkitzeko zailtasunak direla-eta, enpresek lanpostu horietarako ezarritako soldatak baino handiagoak eskaintzen dituzte.

Hala ere, soldaten hobekuntza produktibitatea hobetu gabe gertatu da, eta lan-kostua handitzen ari da. Eta horrek ekar dezake enpresak lehiakorrak ez izatea produktu edo zerbitzu bera eskaintzen duten beste enpresa batzuekin, eta haien prezioa lehiakideena baino handiagoa izatea. Ondorioz, enpresek ezin dute esportatu, beren erosleei ez zaizkielako produktu edo zerbitzu horiek hain prezio altuan interesatzen; erosle horiek produktu bera prezio merkeagoan eskaintzen



du ten beste herrialde batzuetara jo dezakete. Egoera hori gerta ez dadin, funtsezkoa litzateke produktua desberdina izatea; adibidez, kalitate hobea izatea.

2)

Irizpidea: FIFO		SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
data	deskribapena	kopurua	prezioa	balioa	kopurua	prezioa	balioa	kopurua	prezioa	balioa
05/01	Hasierako izakinak							20	10	200
05/07	Erosketa GACi	30	11	330				20	10	200
								30	11	330
05/10	Salmenta JOSTAri				20	10	200	20	11	220
					10	11	110			
05/105	Salmenta TUNIAri				20	11	220	0	0	0
05/23	Erosketa BARAri	25	11	275				25	11	275
05//25	Erosketa EIRAri	15	12	180				25	11	275
								15	12	180
5005/30	Salmenta SNOWi				25	11	275	10	12	120
					5	12	60			

Amaierako izakinak: 10 Unitate
Izakinen balioa: 120 €

Irizpidea: BPH		SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
data	deskribapena	kopurua	prezioa	balioa	kopurua	prezioa	balioa	kopurua	prezioa	balioa
05/01	Hasierako izakinak							20	10	200
05/07	Erosketa GACi	30	11	330				50	10,6	530
05/10	Salmenta JOSTAri				30	10,6	318	20	10,6	212
05/105	Salmenta TUNIAri				20	10,6	212	0	0	0
05/23	Erosketa BARAri	25	11	275				25	11	275
05//25	Erosketa EIRAri	15	12	180				40	11,375	455
05/30	Salmenta SNOWi				30	11,375	341,25	10	11,375	113,75

Amaierako izakinak: 10 unitate
Izakinen balioa: 113,75 €

3)

1) a; 2) c; 3) c; 4) c; 5) a; 6) c; 7) c; 8) a; 9) a; 10) b

4)

a) **BEG:**

$$BEG = -D_0 + F_1/(1 + k)^1 + F_2/(1 + k)^2 + F_3/(1 + k)^3$$

$$k = (i + g) + (i \cdot g) \quad k = (0,08 + 0,1) + (0,08 \times 0,1) = 0,188$$

➤ A proiektua:
D₀ = 10.000 €

F₁ = 4.000 €



$$F_2 = 6.000 \text{ €}$$

$$F_3 = 8.000 \text{ €}$$

$$BEG A = -10000 + \frac{4.000}{1.188} + \frac{6.000}{1.188^2} + \frac{8.000}{1.188^3} = 2.389.61 \text{ €}$$

Positiboa da; beraz, inbertsio-proiektu hori onargarria da.

➤ B proiektua:

$$D_0 = 26.000 - 10.500 = 15.500 \text{ €}$$

$$F_1 = 6.000 - 5.000 = 1.000 \text{ €}$$

$$F_2 = 6.000 - 5.000 \times 1,12 = 400 \text{ €}$$

$$F_3 = 20.000 - 5.600 \times 1,12 = 13.728 \text{ €}$$

$$F_4 = 16.000 - 6.272 \times 1,12 = 8.975,36 \text{ €}$$

$$BEG B = -15.500 + \frac{1.000}{1.188} + \frac{400}{1.188^2} + \frac{13.728}{1.188^3} + \frac{8.975,36}{1.188^4} = -1.681,26 \text{ €}$$

Negatiboa da; beraz, inbertsio-proiektu hori ez da onargarria.

BEG (A) BEG (B) baino handiagoa denez, BEG irizpidearen arabera A proiektua aukeratuko beharko luke, errentagarria delako. B proiektua ez da errentagarria: gaur egungo balioetan balioetsita, galerak izango lituzke.

b) Berreskuratze-epea:

➤ A proiektua

Urtea	Urte horretan berreskuratutako hasierako inbertsioa	Oraindik berreskuratze dagoen hasierako inbertsioa
0		10.000,00
1	4.000,00	6.000,00
2	6.000,00	0,00
3	8.000,00	



A proiektuaren berreskuratze-epea 2 urtekoa izango da. Inbertsioa onargarria da, inbertsioa balio-bizitzan berreskuratzen baita.

➤ B proiektua

Urtea	Urte horretan berreskuratutako hasierako inbertsioa	Oraindik berreskuratze dagoen hasierako inbertsioa
0		15.500,00
1	1.000,00	14.500,00
2	400,00	14.100,00
3	13.728,00	372,00
4	8.975,36	

8.975,36	_____	12 hilabete	X = 0,5 hilabete
372,00	_____	x hilabete	

B proiektua berreskuratze epea 3 urte eta hilabete erdikoa da. Inbertsioa onargarria da, baina inbertsioa ezarritako epearen amaieran berreskuratuko da.

Berreskuratze-epea irizpidearen arabera, A proiektua aukeratuko beharko luke, inbertitutakoa lehenago berreskuratuko bailuke B proiektuarekin baino.

c)

Bi metodoetatik fidagarriena balio eguneratu garbiaren metodoa da.

- BEGak kutzako fluxu garbi guztiak eguneratzen ditu (hasierako ordainketa ere une horretan bertan dago), eta kontuan hartzen du diruak denboran zehar izaten duen balio-aldaketa (inflazioa). Pay-back-ak ez du inflazioa kontuan hartzen eta kutzako fluxu garbiak gehitzen ditu, noiz lortu diren kontuan hartu gabe. Metodo estatikoa dela jakin beharko luke, hau da ,ez duela kontutan hartzen denbora pasatuz gero diruak balioa galtzen duela. BEGak kontuan hartzen du enpresak inbertsioari eskatzen dion gutxieneko errentagarritasuna (enpresak eskaintzen dion errentagarritasuna kalkulatu ez badu ere). Pay-back-ak ez dio

errentagarritasunari erreparatzen; inbertsioa ezarritako epean berreskuratzen den ala ez beste ezeri ez dio begiratzen.

- BEGak kutzako fluxu garbi guztiak hartzen ditu kontuan, baita inbertsioa berreskuratu ondorengoak ere; Pay-back-ak ez ditu kontuan hartzen kutzako fluxu garbiak inbertsioa berreskuratu ondoren.

5)

a)

Batez besteko hornidura-aldia

$$HA_h = 365 / n_h$$

$n_h =$ Lehengaien urteko kontsumoa / Lehengaien urteko batez besteko izakinak
 $= 45.000 / 1.500 = 30$ aldiz

$HA_h = 365 / 30 = 12,17$ egun. Lehengaiak 12,17 egun irauten dute biltegian ekoizpen-prozesura pasatu arte.

Batez besteko ekoizpen-aldia

$$HA_e = 365 / n_e$$

$n_e =$ Ekoizpen-prozesuan dauden produktuen urteko kostua / Ekoizpen-prozesuan dauden produktuen batez besteko izakinak $= 100.000 / 5.000 = 20$ aldiz.

$HA_e = 365 / 20 = 18,25$ egun. Ekoizpena hasita, enpresa 18,25 egun behar ditu produktua ekoitzi arte.

Batez besteko salmenta-aldia

$$HA_s = 365 / n_s$$

$n_s =$ Salmenten urteko bolumena (kostuetan baloratuta) / Produktu bukatuen batez besteko stocka (kostuetan baloratuta) $= 104.000 / 5.200 = 20$ aldiz

$HA_s = 365 / 20 = 18,25$ egun. Produktu fabrikatuek batez beste 18,25 egun irauten dute biltegian saldu arte.

Batez besteko kobrantza-aldia

$$HA_k = 365 / n_k$$

$n_k =$ Salmenten urteko bolumena (salmenta-prezioan baloratuta) / Merkataritza-kredituen batez bestekoa (kobratzeko duguna) $= 135.000 / 3.600 = 37,50$ aldiz

$HA_k = 365 / 37,50 = 9,73$ egun. Enpresak batez beste 9,73 egun igaro ondoren kobratzen ditu bezeroen fakturak eta letrak.

BATEZ BESTEKO HELTZE-ARO EKONOMIKOA (BHA_E) = HA_n + HA_e + HA_s + HA_k

BHA_E: 12,17 + 18,25 + 18,25 + 9,73 = 58,40 egun igarotzen dira lehengaiak biltegian sartzen direnetik bezeroen fakturak eta letrak kobratu arte.

BATEZ BESTEKO HELTZE-ARO FINANTZARIOA (BHA_F) = HA_h + HA_e + HA_s + HA_k - HA_o

Batez besteko ordainketa-aldia = HA_o = 20 egun pasatzen dira normalean hornitzaileei fakturak ordaindu arte.

BHA_F: 58,40 - 20 = 38,40 egun igarotzen dira hornitzaileei lehengaiak erosteagatik ordaintzen zaienetik bezeroei saldutako produktuak kobratu arte. Enpresak prozesu produktiboa erabat finantzatu behar duen egun-kopurua da.

6)

a)

10.000 maleta txinatarrei erostea 12 € ekoizpen-kostua 8 €

Txinatarrei erostea = 10.000 x 12 = 120.000 €

Bollarrek ekoiztea = 10.000 x 8 = 80.000 €

Makineria erostearen kostua ezin da izan 40.000 eurotik gorakoa.

b)

Makinak erostea 40.000 € eta 10.000 maleta ekoitzi

Kostu-murrizketa % 25 = 8 - (8ren % 25) = 8 - 2 = 6 €

$$10.000 = 40.000 / (p - 6)$$

$$10.000p - 60.000 = 40.000$$


$$10.000p = 100.000$$

$$p = 100.000 / 10.000 = 10 €$$

Maleta bakoitza erosteko gehieneko prezioa 10 euro da.



c)



7)

a)

$P_0 = Q/L = 240.000 / (12 \times 250 \times 8) = 10$ amu-kaxa lan egindako ordu bakoitzeko (iaz)

$P_1 = Q/L = 270.000 / (13 \times 1.764) = 11,77$ amu-kaxa lan egindako ordu bakoitzeko (ekitaldi honetan)

Produktibitatearen aldakuntza-tasa: $((P_1 - P_0) / P_0) \times 100 = ((11,77 - 10) / 10) \times 100 = \% 17,7$. Produktibitatea % 17,7 handitu da aurten.

b)

Produktibitatearen aldakuntza-tasa: $((P_s - P_A) / P_A) \times 100 = ((13 - 11,77) / 11,77) \times 100 = \% 10,45$. Sektoreko produktibitatea ARRAIN-AMU enpresakoa baino % 10,45 handiagoa da.

c)

Produktibitatea guztira = ekoiztiko balioa/produkzio-faktoreen kostua = $270.000 \times 23 / (270.000 \times 4) + (1.764 \times 13 \times 15) = 4,36$. Beraz, ekoizpen-faktoreetan inbertitutako euro bakoitzeko 4,36 euro lortzen dira.

d)

Makina eta teknologia berrietan inbertitzea, soldata onak ematea eta prestakuntza-ikastaroak egitea langileak motibatzeke, langileei lan-giro ona eskaintzea non beren burua baloratua sentituko baitute, lan-ibilbidean aurrera egin ezinda ez geratzeko neurriak hartzea eta langileak mailaz igo ahal izatea, prozesuak automatizatuta egotea...



8)

a)

AKTIBOA		PASIBOA ETA ONDARE GARBIA	
AKTIBO EZ-KORRONTEA	193.000	ONDARE GARBIA	136.500
Ibilgetu immateriala	19.000	Kapital Soziala	115.500
Aplikazio informatikoak	19.000	Erreserbak	12.000
Ibilgetu materiala	174.000	Ekitaldiko emaitzak	9.000
Eraikuntzak	120.000	PASIBO EZ-KORRONTEA	122.000
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	23.000	Kreditu-erakundeekiko epe luzeko maileguak	122.000
Garraio-elementuak	63.000		
Ibilgetu mater. amort. metatua	(- 32.000)		
AKTIBO KORRONTEA	129.500	PASIBO KORRONTEA	64.000
Izakinak	18.000	Epe laburreko zorrak	18.500
Salgaiak	18.000	Epe laburreko ibilgetu-hornitzaileak	18.500
Epe laburreko finantza-inbertsioak	9.000	Hartzekodun komer. eta ord. best. kont.	45.500
Epe laburreko finantza-inbertsioak ondare-tresnetan	9.000		
Zordun kom. eta kob. best. kontuak	61.000	Hornitzaileak	30.000
Bezeroak	36.000	Hornitzaileak ord. Merka. efektuak	8.500
Bezeroak kobr.merk. efektuak	25.000	Ogasun Publikoa hartzekoduna	3.000
Eskudirua eta b. akt. Lik. baliokideak	41.500	Gizarte. Seg. hartzekoduna	4.000
Bankuak eta kred.-erak., ageriko k.k, euroak	31.300		
Kutxa, euroak	10.200		
AKTIBOA GUZTIRA	322.500	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	322.500

Kapital soziala: $322.500 - 21.000 - 122.000 - 64.000 = 115.500 \text{ €}$

b) Errotazio-funtsa edo maniobra-funtsa,

Maniobra-funtsak enpresaren finantza-oreka zehazten du.

Maniobra-funtsa = Aktibo korrontea – Pasibo korrontea = $129.500 - 64.000 = 65.500 \text{ €}$.

Maniobra-funtsa = (Ondare garbia + Pasibo ez-korrontea) – Aktibo ez-korrontea = $136.500 + 122.000 - 193.000 = 65.500 \text{ €}$.



Maniobra-funtsa positiboa denez, enpresak finantza-egoera egonkorra du; hau da, ez du zailtasunik epe laburreko zorrei aurre egiteko. Enpresak ez du epe laburreko finantzaketara jo behar etengabe kudeaketa arrunteko eragiketak estaltzeko Ondare garbiak eta pasibo ez-korrienteak, aktibo ez-korrontea finantzatzeaz gainera, aktibo korrontearen zati bat finantzatzen dute.

AKTIBO EZ KORRONTEA 193.000		ONDARE GARBIA + PASIBO EZ KORRONTEA 258.500
AKTIBO KORRONTEA 129.500	MANIOBRA-FUNTSA 65.500 €	PASIBO KORRONTEA 64.000

C)

Ratioak eta enpresaren azterketa	Erreferentziako balioak
1. Ibilgetua $\frac{A \text{ Ez } K}{\text{Ondarea} + P \text{ Ez } K} = \frac{193.000}{136.500 + 122.000} = 0,75$	(< 1)
2. Zorpetze osoa $\frac{P \text{ Ez } K + PK}{\text{Ondarea}} = \frac{122.000 + 64.000}{136.500} = 1,36$	(0,5 – 1,2)
3. Likidezia $\frac{AK}{PK} = \frac{129.500}{64.000} = 2,02$	(> 1)
4. Diruzaintza $\frac{AK - \text{Izakinak}}{PK} = \frac{129.500 - 18.000}{64.000} = 1,74$	(> 1)
5. Bermea $\frac{A}{P \text{ Ez } K + P K} = \frac{322.500}{122.000 + 64.000} = 1,73$	(> 1)

IBILGETUA: Adierazten du nolakoa den maniobra-funtsa. Ratioa 1etik beherakoa denez (0,75), maniobra-funtsa positiboa da. Enpresaren egoera ona da, ondare garbia eta pasibo ez-korrontea aktibo ez-korrientiaz gain aktibo korrontearen zati bat finantzatzen ari direlako, epe laburreko kreditura gehiegi jo behar ez izateko

ZORPETZEA GUZTIRA: Enpresaren zorpetze-maila adierazten du. Kanpokoaren finantzaketak baliabide propioekiko duen pisua neurtzen du. Ratioak 1,36 eman digu, eta erreferentziako balioen gainetik dago. Enpresak zorrak ditu, batez ere epe luzerako zorrak. Horrek esan nahi du kanpoko finantzazioa erabiltzen ari direla funts propioak baino proportzio handiagoan. Horrek interesetan dakarren gastuari adi egon beharko da.

LIKIDEZIA: Ratioa ona da, 2,02. Ez du arazorik izango epe laburreko zorrak ordaintzeko, epe laburrean zor duen euro bakoitzeko aktibo korrontean 2,02 euro baititu.

BERMEA: Epe luzerako kaudimena. 1,73ko berme-ratioak adierazten du enpresak ez duela arazorik izango zor guztiei aurre egiteko, berme ona baitu. Beraz, hartzekodunek zorrak kobratzeko duten gaitasuna neurtzen du. Enpresak 1,73 euro ditu aktiboetan zor duen euro bakoitzeko.

DIRUZAINZTA: Enpresak epe laburrerako ordainketei aurre egiteko duen gaitasuna adierazten du. Ratioaren balioa erreferentziako balioaren gainetik dago, eta, beraz, enpresa egoera onean dago, hau da, enpresak salmentengatik kobratzeko dituen fakturak eta eskura duen dirua nahikoa izango du epe laburrean dituen zorrak ordaintzeko. Gehiegizko likidezia du, hau da, enpresak etekinik gabeko aktiboak ditu.

Laburbilduz, enpresaren finantza-egoera ona da. Zorpetzea nahiko handia bada ere, berme ona du. Ez luke arazorik izango epe laburrerako zorrak ordaintzeko, eta zor guztiak oso epe laburrean ordaindu beharko balitu, ez luke likidezia-arazorik izango. Kanpo-finantzaketa finantza propioak baino handiagoa da, eta, beraz, horrek dakarren kostuari adi egon beharko du, eta funts propioetatik lortzen duen errentagarritasuna ikusi beharko du. Agian, pentsatu behar luke ez ote zaion komeni diruaren zati bat, bankuan eta enpresaren kutxetan daukana, epe luzerako zorra ordaintzeko erabiltzea.

9)

Industria-enpresa baten kokapena zehazteko orduan, honako faktore hauek eragiten dute:

- **Lurzoruaren erabilgarritasuna eta kostua:** Industria-enpresak tamaina handikoak izaten dira, eta, gainera, espazioa eta azpiegiturak behar izaten dituzte beren jarduerarako. Horregatik, ez dira hiriguneetan egoten: oso garestia izango litzateke, eta ez oso eraginkorra.
- **Azpiegitura, komunikazio eta garraio egokiak:** Komunikazio- eta azpiegitura-sareetatik (errepideak, trenbidea, portuak...) gertu egotea.
- **Zonako legeak:** Lurralde guztiek ez dituzte arau berak, ordaindu beharreko zergetan aldeak egon ohi dira, kenkariak, dirulaguntzak, baimen jakin batzuk eskuratzeko erraztasuna, etab.
- **Lehengaiak eta bestelako hornidurak eskura izatea:** Salgai handiak eta garraiatzeko zailak etengabe eskuratu behar dituzten enpresak materia horren hornidura-iturritik hurbil kokatu ohi dira (adibidez, marmola edo granittoa lantzen duten enpresak harrobietatik gertu egon ohi dira).
- **Industria lagungarriak eta laguntza teknikoa:** Eguneroko jarduerarako behar dituzten industriak dauden tokietatik hurbil kokatzea. Adibidez, produktuak Internet bidez egiten eta saltzen dituen enpresa batentzat interesgarria da garraio-enpresetatik edo hornitzaileen egoitzetatik gertu egotea.
- **Lan-merkatua:** eskulan kualifikatua eta ez-garestia eskuratzeko erraztasuna. Kualifikazioa edo prestakuntza bilatzen ez bada, erabakia eskulanaren kostuaren araberakoa izango da soilik.
- **Enpresek zerbitzuak eta kostuak partekatzeko eta oinarrizko azpiegitura jakin batzuk ziurtatzeko eremuak egotea,** hala nola industrialdeak.